


Mi pequeño samurái – Bizi izan ez zen umearen historia

Athanasia (Nancy) Francisen eskutik, Hispaniar Ikasketetan doktoregaia, Liverpoolko Unibertsitatea

“Gogoan dut egun hura”, dio nire ikerketan parte hartzen duen Ekairen kolektibo bereko aktibista batek, 2018ko otsailaren 15eko gertaerak kontatzean. “Klasean nengoan, mugikorra bibrazioan, eta mezuak etengabe ari ziren iristen gure kolektiboko Whatsapp taldera. Nire lagunaren profileko argazkiak belztu egin ziren eta zerbait txarra gertatzen ari zelako sentipena izan nuen. Klasetik irten eta nire lagun bati deitu nion zer gertatzen zen jakiteko. Ezin nuen sinetsi...”


Ekaik bere buruaz beste egin zuen 16 urterekin.



Ekai, Ondarroako nerabe bat zen, Euskal Herrikoa. 2017an Trans bezala irten zen armairutik familia eta lagunekin, eta bere guraso Ana eta Elaxarren babesaz lagunduta, Ekai transiziorako lehen pausuak ematen hasi zen, bidea erraza izango zelakoan. Eskolan, irakasle zein klasekideak hasita zeuden Ekaik hautatutako izen eta izenordainak erabiltzen, eta babesari eta miresmena adierazten zizkieten trans pertsonentzat ikusgarritasuna aldarrikatzeko erakutsitako indarragatik. Ekai modu irekian partekatzen hasi zen bere esperientzia, horrek hezkuntza sistemako beste gazte batzuei lagunduko zien esperantzarekin. Hala eta guztiz ere, benetako erronka transiziorako laguntza medikoa bilatzen hastearekin batera heldu zen Ekai eta bere familiarentzat.

“Osasun sisteman sartu ginenean okerrago jartzen hasi zen”, gogoratzen du Elaxarrek, Ekairen aitak, 2019an Arantza Ibarrek zuzendutako *Mi pequeño gran samurai* dokumentalean. Cruceseko, Euskal Herriko ospitalerik jendetsueneko protokolo eta osasun prozedurak aurrez aurre topatzean izandako esperientziaren gaineko hausnarketa da dokumentala. Izan ere, bertako genero unitatera bideratzen dira trans pertsonak. Ikerlari aktibista, lagun, aliatu eta trans pertsona baten bikotekidea naizen honek egindako behaketetan, argi ikus nezakeen sistema trans pertsonen huts egiten ari zitzaiela. Adierazgarria da nolako konnotazio negatiboak zituen “Cruces” izenak trans komunitateko kideen arteko solasaldi informaletan. Eskuraezinaren eufemismoa bilakatu zen “Cruces”, oinazegarriarena, interakzio instituzional zentzugabea, eszena kafkiano baten modukoa. Arazoa ez zen ospital horrena bakarrik, jakina, osasun sistemarena baizik, ez baitzegoen trans pertsonen beharrei erantzuteko diseinatua; are gehiago, kasu batzuetan, ezta trans pertsonen existentzia errekonozitzeko ere, dokumentalean argi ikusten den bezala.


Ekai osasun mentaleko profesionalak ikusi zuten, eta mediku talde pertsonal egoki baten babesa izango zuela ziurtatu zioten. Hala ere, endokrino batek ere ez zuen sekula Ekai ikusi bere tratamendu hormonalaren planeatzeko, azken hori izanik armairutik irten zenetik Ekaik esplizituki nahi zuena, tratamendu hormonalaren alegia. Horren ordez, urtebete baino gehiago eman zuen Ekaik kontsultetan harrapatuta, medikuek trantsizioa ez beste zerbait bilatzera bultzatzen zutelarik, edo dokumentalean esaten den bezala, “gauza txikietaz ez kezkatzen” ikastera. Ekaik, azkenean, bere buruaz beste egin zuen, artean hormoneterako itxaron zerrendan zegoela.



Ordutik, Ekairen gurasoak eragileak izan dira trans pertsonentzako tratamenduetan sortu beharreko aldaketen eztabaidetan, eta aldaketa hauek gerta daitezzen borrokatu dira. “Trans izatea ez da gaixotasuna”, dio Elaxarrek bere semearen galerari buruzko elkarrizketa batean, “despatologizatu egin behar da”.

Gutziz berria zen komunitate bat batu zen Ekairen hiletan, adin guztietako pertsonak, bizitzako esparru guztietakoak, auzo, hiri, herrialde ezberdinetakoak. Kandlez sortutako bihotz handi baten inguruan batu ziren bere izena erdian zela; lur-jota egotearen sentimenduak batu zituen, bizitzen jarraitu beharko zukeen mutil bati azken agurra emateko nahiak. Nire oharretara itzultzen naiz, baita beste pertsona batzuen Ekairen hiletako oroitzapenen kontaketa ere. Xehetasun batzuek nahiko hutsalak diruditen arren hauek dira barrua gehien mugitzen didatenak. Jendetza Mikel Laboaren Txoria-Txori abesten; jatorriz, frankismo garaian faxismoaren aurkako erresistentzian inspiratutako poema. Ezin aipatu gabe utzi hiletan letra beste zentzu batekin aberastu zela, negar artean abesten zutenek egotzitako zentzu berriarekin, nahiz eta mingarria izan.

*Hegoak ebaki banizkio
Neria izango zen
Ez zuen aldegingo
Bainan, honela
Ez zen gehiago txoria izango
Eta nik ... txoria nuen maite.*



(Elaxar Lersundik atseginez baimendu dituen argazkiak)

2020ko azaroaren 20an, arratsaldeko zazpitan, *Mi pequeño gran samurai* ikusgai izango da Londreseko Euskal Etxeak eta Liverpooleko Unibertsitateko Euskal ikasketen taldeak babestuta, 2020ko Trans Memoriaren Eguna ospatzeko (#tdor2020).

Erreserbatu ekitaldirako sarrera doan:

<https://www.eventbrite.co.uk/e/tdor2020-film-screening-discussion-mi-pequeno-gran-samurai-tickets-128098832055> (Eventbrite)